



'Egunkaria auzia'

berria

Asteazkena, 2014ko urriaren 15a

11 urte joan
eta gero,
itxita

libre!





Egunkaria-ren alde elkarrekin auzi ekonomikoaren itxiera eskatzeko joan den irailaren 18an Donostian egindako elkarretaratzea. Parkartarekin, auzi ekonomikoko sei auzipetu. JON URBE / ARGAZKI PRESS

'Egunkaria' -ko auzi ekonomikoa ere betiko itxi dute, preskribatutzat jota

Gipuzkoako Lurralde Auzitegiaren autoaren arabera, zehaztugabeak ziren ustezko delituak eta haien egileak, eta berretsi egin du maiatzeko erabakia • Zortzi auzipetu zeuden, zigor eskaera handiekin

Enekoitz Esnaola

«Auto hau irmoa da, eta haren aurka ezingo da inolako ohiko helegiterik jarri». Hala dio Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak *Egunkaria*-ko auzi ekonomikoari buruz ateratu duen autoak. Bukatu da auzi hura, eta, ondorioz, bukatu da *Egunkaria auzia*, 11 urte pasara. Kazetaren itxierako epaiketarik bost lagun epaitu, eta 2010eko apirilaren 12an absoluzioa eman zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak. Pieza ekonomikoan zortzi lagun zeuden auzipetuta, eta Gipuzkoako auzitegiak artxibatu egin du, Donostiako Zigor Epaitegiaren erabakia berretsita. «Zehaztugabetzat» jo ditu fiskaltzak aipaturiko auto bateko akusazio-

ak, eta ustezko delituak preskribatu ditu. Amañtu da auzia. Baina *Egunkaria* itxita da 2003ko otsailaren 20tik; horrek ez du atzera bueltarik.

Juana Maria Unanue, Iñigo Suarez de Odrizola eta Maria del Carmen Bildarraz 3. sekzioko magistratuak hartu dute behin betiko artxiboaren erabakia, aho batez. Deliberatu behar zutena: Gipuzkoako Fiskaltzak auzipetuei leporatzen zizkien ustezko delituak preskribatuta zeuden ala ez. Joan den maiatzaren 23ko auto batean Carmen Zubimendi Donostiako Zigor Epaitegiako epaileak ebazti zuen preskribatuta zeudela, eta auzia itxitzat eman zuen. Behin-behinean, ordea. Izan ere, fiskaltzak bazuen Gipuzkoako Lurralde

HAUEK ZIREN ESKAERAK

Joan Mari Torrealdai. 18 urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra eta 31 milioi euroko isuna.

Iñaki Uri. 18 urte eta lau hilabeteko kartzela eta 31 milioi euroko isuna.

Txema Auzmendi. 18 urte eta lau hilabeteko kartzela eta 31 milioi.

Joxe Mari Sors. 18 urte eta lau hilabeteko kartzela eta 31 milioi.

Ainhoa Albisu. 18 urte eta 4 hilabeteko kartzela eta 31 milioi.

Mikel Sorozabal. 13 urte eta 9 hilabeteko kartzela eta 25 milioi.

Fernando Furundarena. 13 urte eta 9 hilabeteko kartzela eta 21 euroko milioi.

Begoña Zubelzu. 9 urte eta 2 hilabeteko kartzela eta 20 milioi.

Auzitegi jotzeko aukera. Jo zuen, ekainaren 11n, apelazio helegitea aurkeztuta; epaiketa egitea nahi zuen. Defentsak inpugnatu egin zuen ekainaren bukaeran, eta orain hartu dute Gipuzkoako auzitegi magistratuak erabakia.

Ondorioz, kasuko zortzi auzipetuek libre geratu dira: Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Joxe Mari Sors, Ainhoa Albisu, Mikel Sorozabal, Fernando Furundarena eta Begoña Zubelzu. *Egunkaria*-ren itxierako auzipetu ere izan ziren Torrealdai, Uri eta Auzmendi.

1998-2001 artean diru laguntza publikoan iruzurra eta diru kontuen faltutzea egitea egotzen zieten auzipetuei, eta, 2003ko urriaren 16ko operatibotik kasuak buel-

ta asko eman ondoren, joan den apirilaren 7an egin zuten aurretzeko saioa Donostiako epaitegiaren. Defentsako abokatuak, preskripzioa eskatzeaz gain, oinarriko eskubideen urratzeak, akusazioak proposatutako lekuko eta perituen baliogabetasuna eta beste hainbat arrazoibide erabili zituzten auzia ixteko eskatzeko. Zubimendik ez zuen beharrik izan kontu haiez ebazpena emateko, preskripzioari heldu baitzion.

Hala, epaileak zioenez, delitu haiek egin zirela frogatu izan balitz ere, duela 16 eta 13 urteko kasu batzuei buruzkoak ziren, eta halako delituak 5 urtera preskribatzen dutela. Haren arabera auzia ezker ez zuenez eten, kasua itxitzat eman zuen. Gipuzkoako



auzi ekonomikoak ez dela hala-
korik izan.

Fiskaltzak duela hilabete he-
legitea aurkeztu zuenean, aipatu
zuen formazko zela. Auziko beste
parteak bezala, ados zegoen ustez-
ko delituak noiz hasi ziren (1998,
1999, 2000 eta 2001ean), eta ba-
koitzaren preskripzioa epea 5 urte
zela. Baina iritzi zion 2003ko aza-
roaren 4ko auto batek eten egin
zuela preskripzioa, han zehaztu
zirelakoan delituak eta egileak.
2003ko urriaren 16an *Egunkaria*-
ko auzi ekonomikoko operazioa-
ren ostean Juan del Olmo Auzitegi
Nazionalako epaileak egindako
auto batean oinarritu zen fiskala;
Guardia Zibilak 2006ko urriaren
27an egindako txosten bat ere
aipatu zuen, besteak beste.

Gipuzkoako Lurralde Auzitegi-
ko 3. sekzioak ere ez ditu aintzat
hartu haren argudioak. Guardia
Zibilaren txostenaz dio salaketa
bat baizik ez dela, eta Del Olmoren
auto hari heldu dio. Atzo sinatuta-
ko autoan garbi esan dute han ez
zirela aipatzen «ez egintza haiek
eta ez egintza haietan inplikaturik
dauden pertsonak», autoak ez da-
karrela «ustezko jokabide tipiko-
ak zehazteko inolako elementu-
rik», eta «modu luze eta ezinago
zabalean baina adierazpen hu-
tsezkoan» dakarrela «kontaki-
zun faktikoa, inolako zehaztape-
nik gabe». Hortaz, «badu zehaz-
tugabetasun bat, objektiboa be-
zain subjektiboa, eta, ebazpen
honen aurreko arrazoibideetan
azaldutako baldintzen arabera,
ezin eman dakiokoe agindua etena-
razteko indarririk» eta «ezin da
inondik inora ere jo etete-eragin-
kortasunez kotzatu».

Gipuzkoako magistratuak diote
auzi ekonomikoari buruzko ze-

Lurralde Auzitegiak berretsi egin
du erabakia, Espainiako Zigor
Kodearen 132. artikuluan oinarritu-
ta. Unanue, Suarez de Odrizola
eta Bildarraz magistratuak atzo
ateratako autoan esaten dutenez
artikulu harekin ezarrita dagoen
doktrinarekin, auto judizialean
argi zehaztu behar direla kasu
bateko ustezko delituak eta egile-
ak, eta ebatzi dute *Egunkaria*-ko

GAKOAK

1 Operazioa. 2003ko
urriaren 16an izan zen
Egunkaria-ko auzi eko-
nomikoko operazioa, kazeta-
ren itxierakoa izan eta ia zortzi
hilabetera.

2 Kasua, Donostiara.
Egunkaria-ko itxiera-
ko absoluzioaren on-
doren (2010eko apirila), pieza
ekonomikoa Donostiako
Epaitegira pasatu zuten, 1998-
2001 arteko ustezko delituak
«arruntak» liratekeelako (diru
laguntza publikoen iruzurra
eta diru kontuen faltsutzea),
ez «terroristak».

3 Preskripzioa. Donos-
tiako Zigor Epaitegiak
auzia preskribatutaz
jo zuen aurtengo maiatzean.
Defentsaren arrazoiak aintzat
hartu zituen.

4 Apelazio helegitea.
Gipuzkoako Fiskal-
tzak apelazio helegi-
tea aurkeztu zuen, preskrip-
zioa 2003ko azaroaren 4ko
auto batek eten zuelakoan.

**5 Behin betiko artxi-
boa.** Gipuzkoako Lu-
rralde Auzitegiak
Egunkaria-ko auzi ekonomi-
koa behin betiko artxibatu du,
ustezko delituen preskripzioa
ez zela eten ebatzita. Espainia-
ko Zigor Kodearen 132. artiku-
luan oinarrituz, auzitegiako 3.
sekzioak dio, preskripzioa
etete, fiskaltzak aipatutako
autoan ustezko delituak eta
haien egileak zein diren ze-
haztuta agertu behar zirela,
eta auto hartan ez zegoela ha-
lakorik; «zehaztugabea» dela
dio. Erabakia irmoa denez,
auzia bukatu da.

‘Egunkaria auzia’ • 3 Pieza ekonomikoaren artxiboa

haztasun judizialak, Auzitegi Na-
zionalak kasua prozedura laburtu
gisa bihurtzea erabaki zuela-eta,
2007ko apirilaren 10eko auto ba-
tekoak direla –defentsak hasiera-
tik horixe zioen–, orduan etengo
litzatekeela preskripzioa, baina
ordurako jadanik kasua preskri-
batutaz jo behar dela.

Del Olmoren 2003ko azaroaren
4ko autoak itxierako auziarekin
zerikusia zuen, nahiz eta autoan
bazioen ETArekin loturarik ez zu-
ten «delituak» ere ikertu beharko
litzuketela. Baina han ere –eta or-
duko azaroaren 26an zabalduetako
prozedura berrian ere ez–,
ez ziren zehaztu auzi ekonomiko-
ko ustezko delituak eta egileak.

Ustez delituri ez

Egunkaria-ko auzi ekonomikoan
delituak egon ziren ala ez zuten
ebatzi Zubimendi epaileak; ezta
Gipuzkoako auzitegi hiru ma-
gistratuak ere. Dena dela, Zubi-
mendik gogoratu zuen auzibidean
zehir ustezko kaltetu ziren era-
kunde publikoek uko egin ziotela
auzian parte hartzeari eta, gaine-
ra, delituri ez zela egin azaldu
zutela txosten sendoen bidez.

Eusko Jaurlaritzak *Egunkaria*-
ri emandako diru laguntzak lege-
zkoak izan zirela jasotzen duten bi
txosten prestatu zituen: 2012an,
Patxi Lopezen (PSE-EE) lehenda-
kari zen garaiko Kultura Sailak
egin zuen bat; eta bestea iaz, Iñigo
Urkulluren (EAJ) gobernuko Ogas-
un eta Finantza Departamen-
tuak. Gipuzkoako Foru Aldundiko
Ogasun Departamentuak ere esan
izan du *Egunkaria*-ren partetik ez
zela diru kontuen faltsutzerik ger-
tatu –Gipuzkoan zeukan egoitza
fiskala *Egunkaria*-k, Andoainen–.
Auzipetuek beti salatu izan dute

Eskertza ekitaldia etzi Andoainen, kultur parkean

+ *Egunkaria*-ren alde elkar-
teak eskertza ekitaldi ire-
ki bat antolatu du etzira. An-
doainen (Gipuzkoa) izango da,
Martin Ugalde kultur parkean,
12:00etan hasita. Pieza ekono-
mikoa auzipetuta izan direnek
Donostiako Lurralde Auzitegia-
ren autoaren balorazio bat
egin dute, eta ondoren mo-
kadu bat egongo da. Euskaltza-
leei bertara joateko gonbita
egin die elkarrekin. *Egunkaria*-
ren itxierako absoluzioa izan
zenez ere ekitaldi txiki bat
egin zuten Andoaingo kultur
parkean. Han zeukan egoitza
Egunkaria-k, itxi zutenean.

kasuak «bultzada politikoa» zue-
la. 2010ean, *Egunkaria*-ko itxie-
rako absoluzioaren ostean, pieza
ekonomikoa Donostiako Zigor
Epaitegira pasatu zuen Auzitegi
Nazionalak, ustezko delituak
arruntak zirelako, ez «terroris-
moarekin» lotutakoak. Auziaren
hasieran Fiskaltza Ministerioa ez
zen akusazio gisa aurkeztu. Gero
egin zuen hori, Dignidad y Justicia
elkarrekin egindako eskaerei atxi-
kiz –2011ko abenduan elkarrekin
auzitik kanpo utzi zuen Auzitegi
Nazionalak–. Eta, hain zuzen, zor-
tzi laguntzat guztira 128 urteko
kartzelaldia eta 221 milioiko isuna
eskatu zuen fiskaltzak.

Auzipetuek, halaber, beti esker-
tu izan dute euskal gizarteak
emandako «babesa».

Bukatu da *Egunkaria* auzia.
Aztarna utzita.

Egunkaria libre!

Eskertza ekitaldia

Urriak 17, ostirala, 12:00etan
Martin Ugalde kultur parkean, Andoainen



www.egunkaria.info

4.254 EGUN, 607 ASTE, 139 HILABETE, 11 URTE

2003ko otsailaren 20 hartatik atzo arte. Polizia operazioa, atxiloketak, espetxeratzek, tortura salaketak, mobilizazioak, absobiltzek eta artxibatzeak. 11 urteko joanaren mugarriak.

2003. urtea

Otsailak 20. *Euskaldunon Egunkaria* euskarazko kazeta itxi eta hamar lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak, Juan del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailearen aginduz. Joan Mari Torrealda, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Xabier Alegria, Fermín Lazkano, Luis Goia (2006an hil zen) eta Inma Gomila izan ziren atxilotutakoak.

Otsailak 21. *Egunkaria*-ko langileek *Egunero* egunkaria atera zuten. Lehen egunean, 70.000 ale saldu zituen *Egunero*-k, eta BERRIA atera artean iraun zuen (2003ko ekainaren 21ean sortu zen BERRIA; une hartan, ia hamasei mila akziodun zituen).

Otsailak 25. Guardia Zibilaren esku bost egun inkomunikatuta egin ostean, Torrealda, Uri, Oleaga, Auzmendi eta Alegria baldintzarik gabe espetxeratzeko agindu zuen epaileak. Aldiz, Otamendi, Gomila, Lazkano eta Goia aske utzi zituen, bermea ordainduta. Zubiriari 72 orduz luzatu zion inkomunikazioa epaileak.

Urriak 16. Martin Ugalde kultur parkearen eta *Egunkaria*-ren enpresa taldearen aurkako operazioa egin zuen Guardia Zibilak, Del Olmok aginduta, eta zortzi lagun atxilotu zituen: Mikel Arrizabalaga, Angel Diez, Armando Hernandez, Mikel Sorozabal, Joxe Mari Sors, Mikel Azkune, Joanmari Larrarte eta Xabier Legarra.

Urriak 20. Eneko Etxeberria *Egunkaria*-ren enpresako abokatu atxilotu eta inkomunikatzeko agindu zuen Del Olmok, Auzitegi Nazionalean bertan.

Urriak 21. Arrizabalaga, Diez, Etxeberria eta Hernandez bermerik ordaindu gabe libre geratu ziren. Sorozabal, Sors, Azkune,

Larrarte eta Legarra, berriz, hamabina mila euro ordainduta. Denak inkomunikatuta eduki zituzten.

2004. urtea

Abuztuak 2. Iñaki Uri izan zen *Egunkaria auzia* zela-eta aske geratzen azkena. 2004ko abuztuaren 2an atera zen, 450.000 euroko bermea ordaindu ondoren.

Urriak 15. Martin Ugalde *Egunkaria*-ren sortzaileetakoaren kontu korranteak desbokatuz zituen Auzitegi Nazionalak, hura hil eta 11 egunera.

Azaroak 4. Auzipetze autoa kale-ratu zuen Del Olmok: Torrealda, Uri, Auzmendi, Otamendi, Zubiria, Oleaga eta Alegria auzipetu zituen instrukzio epaileak. Joxemi Zumalabe *Egunkaria*-ren sortzaileetako ere bai, hura hilik egon arren.

Abenduak 25. Auzipetzeak berretsi zituen epaileak, Joxemi Zumalaberean salbu. Defentsa abokatuek dei helegiteak aurkeztu zituzten zigor aretoan.

2005. urtea

Otsailak 22. Europako Legebiltzarreko 22 diputatuk *Egunkaria auzia* artxibatze eskatu zuten: Legebiltzarreko lehendakariorde Gerard Onestak, lau talde politikotako kideek (Independentzia eta Demokrazia Taldea, Europako Aliantza Libre, Berdeak eta Europako Liberalek eta Demokraten Aliantza) eta talderik gabeko batek.

Urriak 19. Espainiako 61 diputatu eta senatarik (EAJ, EA, Nafarroa Bai, CC, IU-IV-ICV, ERC, CiU, BNG, CHA taldeetakoak) *Egunkaria*-ren aurkako kasua artxibatze eskatu zuten, ebazpen baten bidez.

Azaroak 18. *Egunkaria auzia* itxeko eskatu zuten Eusko Lege-



Guardia Zibila, Andoingo Martin Ugalde kultur parkean, 2003ko otsailaren 20an. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

biltzarrean EAJk, EAK, EBk, EABk eta Aralarrek.

2006. urtea

Urtarrilak 26. Auzitegi Nazionaleko Zigor arloko 2. salak auzipetuen abokatuek jarritako helegiteak aztertu zituen.

Abenduak 15. *Egunkaria* itxeko arrazoirik eta deliturik ez zegoela aitortu, eta auzia itxeko eskatu zuen Miguel Angel Carballo Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskalak.

2007. urtea

Martxoak 29. *Egunkaria*-ko hiru langile ohi inputatu eta deklaratzera deituta, auzi ekonomikoak berpiztu zuen Del Olmok.

Maiatzak 10. *Egunkaria auzia* (kazetaren itxierari buruzkoa) epaitzea erabaki zuen Auzitegi Nazionalak.

Ekainak 14. Fiskalak ez zuen akusaziorik aurkeztu kalifikazio idatzian.

Azaroak 28. Del Olmok auzi ekonomikoan epaiketa egitea erabaki zuen, prozedura laburtuaren bidez.

2008. urtea

Urtarrilak 24. Salak erabaki zuen auzi ekonomikoaren epaiketa Auzitegi Nazionalean egitea.

Otsailak 20. *Egunkaria*-ren itxieraren bosgarren urteurrena bete zen. Hainbat lagunek eta eragilek elkarretaratzea egin zuten urteu-

rren hartan ere Andoainen (Gipuzkoa), Martin Ugalde kultur parkean. Eusko Jauraritzak berriro eskatu zuen auzia artxibatzeko.

2009. urtea

Apirilak 15. *Egunkaria*-ko auzi ekonomikoan hainbat eginbide berriro egiteko eskatu zuen Auzitegiak.

Maiatzak 13. Auzi ekonomikoko hiru inputaturi lehen aldiz deklarazioa hartu ondoren (Joan Mari Torrealda, Iñaki Uri eta Txema Auzmendi), auziarekin aurrera egitea erabaki zuen Eloy Velasco epaileak.

Ekainak 23. Kazetaren itxierari buruzko azkeneko auzi saioa egin zuten Auzitegi Nazionalan, 2. salako epaimahaiaren aurrean (Javier Gomez Bermudez, Ramon Saiz Valcarcel eta Manuela Fernandez epaileek osatua). Carballo fiskalak auzia behin betiko itxeko eskaera egin zuen. Iñigo Iruin eta Jose Mari Elosua *Egunkaria*-ko defentsa abokatuek ere bai. AVT eta Dignidad y Justicia herri akusazioek epaiketa egiteko eskatu zuten.

Uztailak 30. Espainiako Auzitegi Nazionaleko Zigor arloko 2. salako epaimahaia *Egunkaria auzia* epaitzearen alde agertu zen, eta epaiketa egin egingo zen, hortaz, Pello Zubiria eta Xabier Alegria auzitik kanpo utzi zituen: Zubiriaren kasuan iraungitaz jo zuelako kasua eta bigarrenaren kasuan ETAKo

kide gisa lehen epaitu zutelako (18/98 auzia-n). Bost auzipetu geratu ziren, beraz: Joan Mari Torrealda, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga.

Uztailak 31. «Sekula abandonatu ez gaituen euskal gizarteari bere laguntza, arnasa eta babesaren beharrei jarraitzen dugula esan behar diogu, hemendik epaiketara begira bereziki», adierazi zuten bost auzipetuek Andoainen egindako agerraldian. «Euskara sustatu izanaren errudun, euskal kultura sutsuki sustatu izanaren errudun, euskal komunikabidegintzan gartsuki jardun izanaren errudun... bai. Baina euskara sustatzeak, euskal kultura sustatzeak, euskal komunikabidegintzan jarduteak ez gaitu ETAKoak bihurtzen, tesi politikalki eta akusazio popularrak baieztatzen duen moduan».

Azaroak 26. Espainiako Auzitegi Nazionalak jakinarazi zuen abenduaren 15ean hasiko zela epaiketa.

Abenduak 15. *Egunkaria*-ren kontrako epaiketaren hasiera, Madrilen, Espainiako Auzitegi Nazionalan. Joan Mari Torrealda, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga auzipetuek deklaratu zuten. Miguel Angel Carballo fiskalak ez zien ezer galdetu —bere garaian auzia itxeko eskatu zuen—, eta auzipetuek ziurtatu zuten *Egunkaria*-k ez zuela loturarik izan ETArekin. Ba-



bes handia jaso zuten Madrilén ere, Euskal Herriko eragile asko joan baitzen.

Abenduak 16. Epaiketaren bigarren saioa. Guardia zibilek deklaratu zuten; hiruk. Guardia Zibilak itxi zuten *Egunkaria*, Juan del Olmo Auzitegi Nazionalako epaileak aginduta. Epaiketako bigarren egunean, fiskalak guardia zibilei ere ez zien ezer galdetu, eta horiek ez zuten frogarik aurkeztu.

Abenduak 19. Manifestazio erraldoia egin zen Bilbon, *Egunkaria*-ren epaiketaren aurka eta auzipetuen alde. Milaka eta milaka lagun batu ziren. Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleagak orduan ere babes zabala eta askotarikoa jaso zuten. «Bildu beharra dauka herri honek», esan zuen Torrealdai, auzipetuen izenean. «Ez dugu nahi gure aurkako zigorraren bitartez euskalgintza-oren aurkako zigorrari bidea etorkizunean ireki diezaioten».

2010. urtea

Urtarrilak 12. Jose Luis Alvarez Santacristina Txelis, Jose Mari Dorronsoro eta Carmen Gisasola euskal presoek azpimarratu zuten ETak ez zuela *Egunkaria*-ren sorreran parte hartu. Guardia zibilek adierazi zuten auziko atxiloketa garaia «normal» joan zela, eta ez zuten kazetaren eta ETaren uestezko loturaz orduan ere frogarik aurkeztu. Presoek eta guardia zibilek

lekuko gisa deklaratu zuten, akusazioek eskatuta.

Urtarrilak 25. *Egunkaria*-ren independentzia eta pluraltasuna defenditu zuten defentsaren hiru lekukok: Iñaki Zabaleta *Egunkaria* Sortzen taldeko partaideak, Imanol Murua Uri kazetako langile ohi eta *Egunkaria* Sortzen-eko kideak, eta Jose Luis Zinkunegi jeusuiten buruak. Fernando Berridi defentsaren lekuko eta ABC-ko zuzendari orokorrak ere hitz egin zuten; *El Diario Vasco*-ko kudeatzailea zela inprenta arloan izan zuten *Egunkaria*-rekin harremana «normala» izan zela zioen. Txomin Aizpuru eta ETako kide ohi eta preso izandakoak adierazi zuten ez duela *Egunkaria*-ren sorrera garaiko txostenik ezagutzen —akusazioaren lekuko gisa deklaratu zuen—. Bi guardia zibilek ere deklaratu zuten, eta ez zuten frogarik aurkeztu.

Urtarrilak 27. Bukatutzat eman zituzten *Egunkaria*-ren aurkako epaiketako auzipetuen, bi aldeetako lekuko eta perituen deklarazioak, eta Miguel Angel Carballo Espainiako fiskalak jakinarazi zuten ez zuela Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga auzipetuen aurkako zigorrak eskatu. Auzibidean kasua artxibatzeako eskaera egin zuten fiskalak, delituri ikusten ez zuela argudiatuta. Defentsak ere orduan ez zuten zigorrak eskatu. Aldiz, Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioek bai;

lehengo eskaerei eutsi zieten—12 eta 14 urte arteko kartzela zigor eskaerak—. Egun hartako saioan bertan, defentsaren lekukoek berretsitu zuten *Egunkaria*-k eta auzipetuek ez zutela ETarekin harremanik. Auzipetuei atzemandako agirien itzulpenetan huts ugari zeudela zioten defentsaren perituek. Guardia zibilek perituek ere deklaratu zuten eta, esaterako, esan zuten faltsua zela *Egunkaria*-ren akzioaren datu basea edota ETak erabaki zuela Martxelo Otamendi zuzendari izendatzea.

Otsailak 1. Orduan bukatu zen *Egunkaria*-ren aurkako epaiketa, parteek Espainiako Auzitegi Nazionalako epaimahaiaren aurrean ondorioak irakurritu eta bost auzipetuek azken hitza esanda, eta epaiaren zain geratu ziren. Fiskalak eta defentsak auzipetuen absoluzioa eskatu zuten, haien aurkako frogarik ez zegoela iritzita. Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioek, aldiz, 12 eta 14 urte arteko kartzela zigor eskaerak egin zituzten auzipetuentzako. «Argi geratu da letra gizonak garela, ez arma gizonak», esan zuen Joan Mari Torrealdai auzipetuek bukaran.

Apirilak 12. Espainiako Auzitegi Nazionalak absolbitu egin zituen Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga *Egunkaria*-ko itxiera kasuko bost auzipetuek, euren kontrako frogarik ez dagoela ebazita. Absolbitu egin zuten, beraz, *Egunkaria*. Javier Gomez Bermudez, Ramon Saez Valcarcel eta Manuela Fernandezek osatu zuten epaimahaia, eta aho batez hartu zuten erabakia. Sententziaren arabera, auzipetuek ez zuten delituri egin eta ez zuten ETarekin loturarik eduki, itxiera neurria Espainiako Konstituzioaren babesik gabekoa izan zen, hedabideak demokrazian oinarritzeko tresna dira, eta itxierarekin adierazpen askatasuna urratu zen, *Egunkaria*-k ez zuten «terrorismoa» gorensten, akusazioak frogarik gabekoak, ahulak eta oinarririk gabek izan dira, eta atxilotuen inkomunikazio garaian ez zen kontrol judizialik egon —torturak eta tratu txarrak jaso izana salatu zuten—. Ikusteko dago Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioek Espainiako Auzitegi Gorenera joko duten, helegitea sartuta.

Apirilak 25. Itxiera kasuko bost auzipetuen eta *Euskaldunon Egunkaria*-n parte hartu zuten gutzientzaren eskerrak emateko ekitaldia izan zen Bilbon, Euskalduna jauregian, musikari, dantzari eta bertsoariak lagun hartuta. Joan Mari Torrealdai auzipetuek go-

goratu zuten auzi ekonomikoa zabalik dagoela eta hor ere absoluzioa behar dela. Kazetako langile ohi eta *Egunkaria*-ren aldeko batzordeetako ordezkariak ere hitz egin zuten (Euskal Herri, Espainia eta Herrialde Katalanetakoek). Ehunka herritarrez gain, euskal gizarteko ordezkariak zabala izan zen eskertza ekitaldian.

Maiatzak 4. *Egunkaria*-ren itxiera kasuko absoluzio epaia behin betikoa eta irrimo bihurtu zen, AVT eta Dignidad y Justicia elkarteek ez zutelako haren aurkako helegiterik jarri Espainiako Auzitegi Gorenean —bi elkarteek apirilaren 29an iragarri zuten ez zutela helegiterik aurkeztuko—. Apirilaren 12an jakinarazi zuten sententzia Auzitegi Nazionalak.

Maiatzak 5. Jose Maria Vazquez Honrubia Espainiako Auzitegi Nazionalako zigor aretoko epaileak jakinarazi zuten Auzitegi Nazionalak ez zuela *Egunkaria*-ko auzi ekonomikoaren aurkako epaiketa egingo, eta auzia Donostiako epaitegira igorriko zutela. Euskarazko kazetaren itxiera kasuko absoluzio epaiaren ondorioz, Vazquez Honrubia ebatzi zuten auzian «delitu terroristaren» zantzurik ez dagoela, eta auzi ekonomikoan legokeen delitu bakarra uestezko zerga iruzurra litzatekeela —«ohiko delitua»—. Hori epaitzea ez denez Auzitegi Nazionalaren esku-duntza, auzia Gipuzkoara pasatze-ko agindua eman zuten —*Egunkaria*-ren egoitza Gipuzkoan zegoen, Andoainen—. Gaia Auzitegi Nazionalan zenean, zortzi auzipetuek zuten auzi ekonomikoan, eta Dignidad y Justicia 13 eta 26 urte arteko espetxe zigorrak eskatu zituzten haientzat, baita 235 milioi euroko isuna ere.

2011. urtea

Martxoak 1. Dignidad y Justicia elkarteak *Euskaldunon Egunkaria*-ren auzi ekonomikotik kanpo utzi zuten Donostiako zigor arloko 3. epaitegiko epaileak eta, ondorioz, elkarteak ezingo zuten herri akusazio gisa aritu. Epailearen arazolia: Dignidad y Justicia ez du auzian esku hartzeko zilegitasunik, elkarrearen estatutuen arabera «terrorismoarekin» lotutako delituen kasuan bakarrik aritzeko helburua duelako, eta *Egunkaria*-ko auzi ekonomikoan ez dago «terrorismoarekin» inolako loturarik. Elkarteak apelazio helegitea sartu zuten.

Abenduak 26. Donostiako Auzitegiak *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurkako auzi ekonomikotik behin betiko kanpo utzi zuten Dignidad y Justicia eta, ondorioz, elkarte horrek ezingo du herri akusazio gisa aritu. Auzitegiako 3. salako

magistratuek zioten Dignidad y Justicia «zilegitasunik» ez duela auzian parte hartzeko, bere estatutuen arabera «terrorismoarekin» lotutako delituen kasuan soilik aritzeko helburua duelako eta *Egunkaria*-ko auzi ekonomikoak ez duelako horrekin zerikusirik, kazetako itxierako absoluzio epaiaik dioen bezala.

2012. urtea

Urriak 16. Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Espainia kondenatu zuten, Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendari ohiaren tortura salaketak ez zituelako behar bezala ikertu. 24.000 euroko ordainsaria ordaindu beharko dio.

2013. urtea

Irailak 26. Foru Aldundiaren Urrezko Bereizgarriak sarria jaso zuten *Egunkaria*-ko langileek —*Egin* eta *Egin* irratiko langileek ere bai—.

2014. urtea

Apirilak 7. Auzi ekonomikoaren aurretiazko saioa. Artxibatzeako eskatu zuten defentsak. Zigor eskaerari eutsi zuten Fiskaltzak.

Ekainak 4. Epaileak auzi ekonomikoa artxibatzea erabaki zuela jakinarazi zuten, uestezko delituak preskribituta daudela iritzita (diru laguntza publikoaren iruzurra eta diru kontuen faltsutzea). Fiskaltzak Gipuzkoako Lurralde Auzitegiaren erreforma helegitea edo apelazioa aurkezteko aukera zuten.

Ekainak 17. Gipuzkoako Fiskaltzak auzi ekonomikoan apelazio helegitea aurkeztu zuten Gipuzkoako Lurralde Auzitegiaren ekainaren 11n (ekainaren 17an jakin zen), uestezko delituek preskribituta ez daudela jota. Defentsak inpugnazioa aurkeztu zuten egun batzuetara.

Ekainak 19. Auzipetuek auzi ekonomikoko fiskaltzaren jarrera salatu zuten, eta «bultzada politikoa eta atzerabidea» daudela ohartarazi.

Irailak 19. Gipuzkoako Lurralde Auzitegiako 3. sekzioak auzi ekonomikoan Carmen Zubimendi Donostiako Zigor Epaitegiko epaileak emandako artxibo sententzia, fiskaltzaren helegitea eta defentsaren inpugnazioa aztertu zituen. Ez zuten eman erabakiaren berri.

Urriak 14. Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak itxi egin du auzi ekonomikoa, Carmen Zubimendi Donostiako Zigor Epaitegiko epailearen erabakia berretsita.

@ 'Egunkaria auziko' argazki bilduma ikusi nahi izanez gero, bistatu webgune hau: berria.eus/egunkaria/argazkiak.php

«Lasaitasuna da, ez justizia»

Zama handi bat gaineratik kendu izanaren sentsazioa izan dute auzipetuek artxibatzearen berri jasota
• 11 urteotan, gainean izan dute auziaren mamua, eguneroko bizimoduan bazter uzten saiatu arren

Hodei lurretagoiena

Poza, urteetako zama gaineratik kentzea. Hori sentitu dute *Egunkaria* auziko pieza ekonomikoko auzipetutakoek, beren aurkako epaiketarik ez dela egingo jakitean. Zama, izan ere, denbora luzekoa izan baita, eta karga handikoa. 2003ko otsailean sartu zen Guardia Zibila lehen aldiz Martin Ugalde kultur parkean: *Egunkaria* itxi, hamar lagun atxilotu... Biharko egunez izan zen bigarren operazioa. Atzo arte iraun duena.

Zortzi lagun atxilotu zituzten 2003ko urriaren 16 hartan. Inputazio eta auzipetzeak ez ziren amaitu gero. Azkenean, zortzi auzipetu egon dira, atzo arte, epaiketara joateko arriskuan: Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Joxe Mari Sors, Ainhoa Albisu, Mikel Sorozabal, Fernando Furundarena eta Begoña Zubelzu. Zigor eskaerak: bederatzirte eta bi hilabete eta hemezortzi urte eta lau hilabetera artekoak. Haietako batzuekin hitz egin dute BERRIAk eta Oarso Bidasoko Hitza-k.

BEGOÑA ZUBELZU

Auzipetua

«Itxieraren garaia izan zen gogorra. Beldurrik handiena da atxiloketa»

«Pisua kendu dugu gaineratik. Azken momentuan, gainean ikusten genuen. Aurretik beti daukazu esperantza, ea artxibatzen duten. Baina azkenengo momentuan, pentsatu genuen artxibatuko zutela, etorri zen helegitea, fiskalaren jarrera... Esaten zenuen: 'Hemen zein dago atzetik?'. Hor kezkatu ginen. Abokatuak ere esan ziguten kezka handia zutela.

»Gero, garaiak daude. Hemen lanean nenbilen, ezberdina zen. Gero, familiarekin, umeekin, badakizu hor dagoela auzia, baina tira. Itxi zenetik BERRIA sortu artekoak, horiek izan ziren garairik gogorrenak. Nahiz eta inputatuta ez egon, kezka eta beldurra handia zen: hor daude, ez dakizu etorriko diren... Beldurrik handiena da atxiloketa. Gu inputatu gintuzten, baina ez gin-



Furundarena, Albisu, Sorozabal, Torrealdai, Uri, Sors eta Zubelzu —Auzmendi kanpoan da—, ekainean, fiskalak artxibatzearen aurka egin ondoren. JON URBE / ARP

tuzten atxilotu. Ez ginen egon inkomunikatuta. Hori ez pasatzearekin, ni pozik. Beldur horrek egiten du egunerokoa zaila izatea.

»Gero, tira, inputatu gintuztenetik aurrera, saiatzen zara zama hori alde batera uzten. Gainera, ez dago zure esku; Madrilen dago auzia, eta egingo dute nahi dutena. Lehenengo absoluzioarekin, arnasa hartu genuen. Donostiara ekarri zuten auzia, berriz. Eta esperantza sortzen zaizu artxibatzearena, baina, fiskalak artxibatzearen aurkako helegitea jartzean, kezka sartu zitzaizkizun berriz. Pozik nago, baina ez dadila berriz pasatu».

AINHOOA ALBISU

Auzipetua

«Abokatuak deitu zidan: '26 urte'. 'Niri?'. 'Bai, bai'. Izan zen ikaragarria»

«Poza da lehen sentsazioa. Ezin sinetsita nago: betiko bukatu da. Berri onak izan genituen orain dela gutxi, baina gero zapuztu egin ziren. Oraindik sinetsi gabe

nago. Eguneroko bizimodua, orain arte, nahiko lasai eraman dut. Hori bazterrean uzten nuen, eta normal bizi nintzen. Beti daukazu hor, baina oso atzean bezala. Ez pentsa ni asko urduritu naizenik. Artxibatuko zela esatean, denok poztu ginen, baina gero berriro etorri zen helegitea. Hori izan zen: 'Berrero. Hau ez da inoiz bukatuko?'. Inoiz bukatuko ez den gauza baten barruan zaudela sentitzen duzu. Baina, tira: bukatu da.

»Gogoan dut itxiera: hemen genbiltzan lanean. Etorri nintzen goizeko zortzietan; lehenengoa izan nintzen iristen, eta hor zeuden guardia zibilak. Saiatu nintzen lanera sartzen, eta: 'Que no, que no, que está cerrado' (ezetz, ezetz, itxita dagoela). Orduan jakin genuen atxiloketena, eta hasi zen etortzen jende guztia. Gero, bigarren operazioa ez genuen inondik inora espero. Zurrumbilo bat izan zen. Eguneroko gauza bat gertatzen zen, lanean ere modu prekarioan ari ginen, tokirik ez genuen, Hemanira... Izan zen hori, baina polita ere izan zen. Gaizki

pasatu genuen *Egunkaria* itxi zutelako, baina atera genuen beste proiektu bat: guk, eta laguntzen aritu den jende mordo batek.

»Inputatu ondoren, gogoan dut abokatuak nola deitu zidan: '26 urte'. 'Niri, ala denen artean?'. 'Bai, bai, zuri'. Izan zen ikaragarria, ezin sinestekoa. Momentu batean, 18/98 auzikoak hasi zirenean kartzelan sartzen, hor nabaritu genuen mamu hori: 'Gu ere izan gaitzake'. Gero baretzen hasi zen; Donostiara ekarri zuten auzia, eta pixka bat lasaia hartu nuen. Oso luzea izan baita, eta gauza asko gertatu dira Euskal Herrian tarte horietan guztietan. Egoera politikoaren arabera ere bizi izan ditugu momentuak, hobeto edo okerrago».

FERNANDO FURUNDARENA

Auzipetua

«Gizartearen babesa eta erantzuna izan da auzi honetan zatirik politena»

«Egun alaia izan da gaurkoa [atzo]. Ez genuen espero gaur ateratzea erabakia, eta niretzat

sorpresa izan da denok batera bukatzea, modu honetan. Orain, sentsazioa da lasaitasuna. Azkenean karga bat da hau guztia. Poliki-poliki joaten zara aurrera eramanez, eta eramaten duzu. Pasatzen dira urteak, eta ez da hasieran bezala. Ikusten duzu bidea irekiago, badoala, aurrera doala, ondo doala, baina bukatu arte hori hor dago. Eta ez da erraza zure familiarizatzea, zure lagunentzat... Ondo bukatzea ospatzekoa da.

»Argi dago auzi politikoa izan dela, eta horrela bukatu da. 11 urte dira, *Egunkaria* itxita, jendea torturatuta, kartzelaturatuta... Gogorra izan da, eta bazen garaia. Eskerrak ematea bakarrik gertatzen zaigu, jendea: gizartearen babesa eta erantzuna izan da auzi honetako parterik politena.

»Gizartearen erantzunarekin gertatzen naiz. Ez da lehen aldia; Euskal Herriko jendearen erantzuna halakoetan beti izan da ona, eta kasu honetan ere hala izan da. Azkenean, euskararen aurkakoa izan da auzia, ez *Egun-*

karia-ren aurkakoa bakarrik. Azkenean, Euskal Herrian, euskara ere ETA da batzuentzat».

JOAN MARI TORREALDAI

Auzipetua

«Hitz batean, lasaitasuna da. Gero datoz gainerako irakurketak: injustizia...»

«Hitz batekin laburbildu behar ko banu, lasaitasuna litzateke. Gero datoz gainerako irakurketak: injustizia, egin zuten bidegabekeria guztia. Hori guztia hor dago, orain ez baita justizia egin, baizik eta sarraskia gelditu, halako batean. Lasaitasuna izan da, ez justizia.

»11 urte dira; gauza asko pasatu dira, eta zaila da laburtzea. Alde batetik, bidegabekeria dago: gure aurkakoa, Egunkaria-ren aurkakoa, euskararen aurkakoa, euskal kulturaren aurkakoa. Hori sentitzen dut barruan, kasik zera solido bat balitz bezala. Eta gero badago satisfazio edo poz handi bat ere, gure jendearen erantzunean. Hori ere izugarria da: zutik mantendu gaitu jendeak. Horretan guztian, nabarmendu nahiko nuke jaso dugun guztia. Azken batean, maitasuna. Babesa, laguntza eta hori guztia, maitasuna da. Jendeak ez du lepo atzean jozen faltsukeriaz. Hurbiltasun izugarria sentitu dugu».

JOXEMARISORS

Auzipetua

«Justiziarik ez da egin, baina gizarteak lehen unetik absolbitu gaitu»

«Sentsazio kontrajarriak ditut. Pozik nago, noski, itxuragabekeria hau guztia bukatu delako, baina ez da justiziarik egin. Azken batean zigorra bete dugu, 11 urtekoa, eta, gainera, dena preskripzioarekin bukatu da. Oso pozik, bai, behin ere hasi behar ez zuena bukatu delako, baina ez da absoluzio bat, preskripzioa baizik. Hainbeste urte pasatu eta gero, zigorra ondo bete dugu.

»Justiziarik ez da egin, baina gizarteak absolbitu egin gaitu, bai, lehen unetik gainera. Absolbitu baino gehiago, ez gaitu akusatatu. Sinetsi zuten egiten genuen lanean. Izan ere, intentzioa zen euskal kultura kriminalizatzea 'dena ETA da' ideiarekin, eta horren ondorio izan da guk pasatutako guztia.

»Gizarte honek eta euskal kulturak ez zuten merzei hainbeste sufritzea. Babestu gaituzten guztiei eskerrak eman behar dizkiet. Orain, tokatuko zaigu egia idatzita uztea».



BERRIA

«Madrilen ixtea erabaki zuten, eta itxi zuten; lan egin behar da hori aldatzeko»

Iñaki Uria • Auzipetua

Eragindako kaltea ez dela konpondu nabarmendu du Uriak, eta argi du Euskal Herrian «justizia propioa» egon balitz ez zela izango 'Egunkaria auzirik'. Eskerrak eman dizkie urteotan babesa agertu duten guztiei.

H. Iruretagoiena Andoain

Gipuzkoako Auzitegitik albistea iritsi berritan erantzun ditu Iñaki Uria auzipetuak (Zarautz, Gipuzkoa, 1960) BERRIAren galderak. Ospakizun giroa dago Martin Ugalde Kultur parkean.

11 urteren ondoren, heldu da behin betiko artxibatzea.

Ez dute helegitea onartu; beraz, lehen epaileak hartutako erabakia, preskripzioagatik artxibatzea, onartzat ematen da. Teknikoki hori gertatu da. Ez dago helegiterako aukerarik. Orain bai: bukatu da.

«Bukatu da» horrek zer esan nahi du zuentzat?

«Bukatu da» horrek esan nahi du, batez ere, zama handiko motxila bat bizkarretik kentzen dela

11 urteren ondoren. Gauza asko gertatu dira. Egunkaria itxi izana da printzipala, baina hor daude gure atxiloketak, torturak, kartzelaldiak, libratzea, Espainiako Auzitegi Nazionalako epaiketara, gero beste epaiketara hau... Gauza asko dira, eta esan nahi du hori bukatzen dela. Ez du esan nahi egindako kaltea konpontzen edo sendatzen denik, baizik eragindako sufrimendua ez dela luzatzen. Luzatzearekin berarekin ere, azkenengoan esan genuen bezala, gaizki pasatzen du zure familiak, lagunek, inguru osoak. Hori bukatu da. Horixe dago.

Erreparatu liteke nolabait kalte hori guztia?

Injustizia ez da erreparatu. Egunkaria itxita dago, eta hori ez da konpontzen. Egin dira saioak Au-

'Egunkaria auzia' • 7 Pieza ekonomikoko auzipetua

zitegi Nazionalan eta, lehenengo epaiketaren ondoren, eta ez dago aukerarik. Atzera bota ziguten. Ez dago nondik heldu eremu horretan. Beste maila batean, gu inoiz ez gara ibili halakorik eskatzen, edo biktimarena egiten.

Beraz, politikoki, injustizia hori badago oraindik? Nola amaitu liteke hori?

Hor dagoen puntu beltza ziurrenik hori da. Ahaztu egiten zaigu, baina Egunkaria itxi zuten PPre-

«[Artxibatzeak] Ez du esan nahi egindako kaltea konpontzen denik, baizik sufrimendua ez dela luzatzen»

gehiengo osoarekin, [Jose Maria] Aznar presidente zela. Gero [Jose Luis Rodriguez] Zapatero etorri zen, eta gauzak ahaztu egin ziren. Baina orain, berriz ere, egon da gehiengo oso hori. Eta, nolabait, horrela interpretatu dugu fiskaltzak aurrera segitu izana.

Orduan, baldintza politiko batzuekin itxi zen Egunkaria, eta herri honek beste baldintza politiko batzuk sortu behar ditu horrelakorik berriz ez gertatzeko. Baldintza horiek, printzipioz, ez dira aldatu. Badaude gaur egun beste osagai batzuk baldintza berriak sortzeko, baina oraindik urrutik xamar gaude herri honetan gure justizia propioa edukitzetik, ez egoteko Madrilgo fiskal bat, ez egoteko legezko menpekotasunik hangoarekin. Hasieratik hemen tratatu izan balitz gai hau, sekula ez zen hau gertatuko, sekula ez zen Egunkaria itxiko. Momentu jakin batean, Madrilen erabaki zuten halako proiektu baten aurka egitea, euskararen eta Euskal Herriaren alde egiten zuelako Egunkaria-k. Erabaki zuten ixtea; ahal zuten, eta itxi zuten. Oinarria hor dago, eta hori oraindik ez da aldatu. Lan asko eta lan handia egin beharra dago hori aldatzeko.

Hala ere, itxi ondoren, beste proiektu bat atera zen aurrera. Esan liteke ez zutela bete sakoneko helburua?

Itxi, itxi zuten, eta eragina izan zuen. Orduan lortu nahi zituzten eraginetako bat zen hori ixtea; hori sortu zuen talde oso bat desegin zuten. Gero sortu ziren BERRIA, HItza. Hori da Egunkaria-ko lanegilek eta herri honetako pertsonen daukaten aurrera egiteko gaitasuna, baina beti hasten zara pauso bat atzetik, berriz ere lehengora iristeko. Bestela egongo ginen aurrerago egoteko moduan. Bestalde, lortu zuten beste eragin bat: beldurra sartzea. Euskalgintza osoan sartu zuten bel-

durra, hemengo erakundeetan, eta bazen abisu bat hemengo autonomia zuzentzen zutenei begira. Ezin dugu ahaztu Ibarretxe plana eta hori guztia zegoela mahai gainean. Garai horiek ziren.

Fiskalaren helegitea izan da azken mugimendua. Ikusi da posible zela berriz epaiketara iristea.

Bai, posible zen. Beti egoten da helegitearen aukera, eta, alde horretatik, posible zen. Epaiketara egin izan balitz, bukatuko litzate-

ke gure absoluzio batekin. Alde batetik, ematen du hobea izan zitekeela. Hau preskripzioa da, artxibatzea, baina behintzat hori


arindu egiten du: pasatu behar ez izatea hortik ez dakit zenbat hila-betez, hori da lehenbizikoa. Hasi behar da hori prestatzen, eta lan handiagoa da. Bestela, hemen kaltetu posible bakarrek, Ogasunak eta Eusko Jaurlaritzak, garbi esan dute ez dagoela kalterik eta deliturik. Orduan esaten dugu: «Zein epaiketa klase da deliturik, eta kalteturik gabekoa?». Hori bertan behera eroriko litzateke, eta absoluziora joango litzateke. Baina absurdo horretan ginen oraindik, Euskal Herrian jendeak argi izan arren zer egon den hemen.

Denbora horretan, nola sentitu duzue jendearen babesa?

Denbora guztian sentitu dugu. Jendearen babesa eduki dugu hasiera-hasieratik. Handik hiruzpaila egunerako Donostian egin zen manifestazio izugarri horretatik hasita, denbora guztian izan dugu erakundeen, herritarren eta jende askoren babesa eta laguntza, denetarikoa. Alde horretatik, eskerrak denei. Hori tokatzen zaigu orain: eskertzea.

Zer esan nahi du zuentzat epaiketaren pisua kentzeak? Zenbateraino baldintzatu dizuete eguneroko bizimodua urte hauetan guztietan?

Ni saiatu izan naiz ahalik eta ondoena eramaten. Proiektu berri batean sartu nintzen, eta proiektu berri hori aurrera eramaten aritu naiz. Nahikoa lan ematen dit Hamiak, eta bultzaka ibili naiz. Honek tartean-tartean ematen ziguna da lana. Gauzak prestatu beharra, bai epaiketara begira, bai komunikazio edo eragite aldetik. Bestela hor geratzen zarelako guztiz bakarartuta. Alde horretatik, nik nahiko ondo eramantut. Beste batzuek gehiago sufritu dute: gurasoak... Beti kezka horrekin. Hori ere bada bakoitza nolakoa den, ingurua nolakoa duen. Nik nirean segituko dut; ez da gauza handirik aldatu honekin.



Egunkaria libre!

Bihar, urriak 16, 11 urte beteko dira *Egunkaria*-ren kontrako bigarren operazioa egin zenetik, eta atzo jakin genuen haren ondoren martxan jarri zuten auzi ekonomikoa artxibatzea erabaki dutela.

Berri ona da dudarik gabe, baina kosta zait lerro hauek idazten jartzea. 11 urte luze horietan izan dugun zama ez da nolana hokoa izan, batez ere atzo arte inputatuta egon direnontzat. 11 urte bidegabekeria bidegabekeriaren gainean: bukatzekotan zela zirudien bakoitzean, biktimen elkarteren bat edo fiskaltza agertzen zen errekurso berri batekin, urteak bata bestearen atzetik pilatuz.

11 urte jakinda deliturik ez zela egin, delitu bakarra herritarrentzako informazio tresnak sortu, euskara sustatu eta herri baten garapenerako oinarriak jarri joatea izan zela. Egunez egun auziaren uzten diguten gisan, nahikoa Espainiako estatuarentzat susmagarri eta terrorista izateko.

2003ko otsailaren 20an itxi zuten *Egunkaria*, eta, handik aurrera, atxilotetak, torturak, kartzela, epailetak eta beste hainbat sufrimendu jasan izan behar ditu lagun askok. Herri euskaldunari euskaraz bizitzeko zituen tresna garrantzitsuetako bat kendu zitoten, bortxaz, gero inondik frogatu ezin izan duten salaketak zirela medio.

Izan ere, zer inporta du ba, helburua *Egunkaria* ixtea zen, eta hura egin zuten, eta hari eutsi diote urte luzeetan, etengabeko kriminalizazio ahaleginean.

Eta, horren aurrean, herri bat, gertatutakoa salatu eta euskaraz bizitzeko aukera ez zigutela kenduko aldarrikatzeaz gain, proiektu berri bat martxan jartzen. Otsailaren 21ean, langileen ekimenari esker, *Egunero* kioskoetan eta postontzietan jaso zen; eta otsailaren 22an milaka lagun ataraginen Donostiako kaleetara. Bi ekinaldi horiek izan ziren ondoren etorriko zenari aurre egiteko ezinbesteko urratsak; horri esker lortu zen tortura eta espetxeraztearen aurka ez gelditzea eta BERRIA sortzeko egitasmoari ere eta indar handiagoz heltzea. Eta ez dut ahazteko, ez, herri bat bainoago bi herri izan zirela kalean eta lanean, salaten eta proiektu berria garatzen, herri euskaldunarekin batera herri katalana ere lagun izan baikenuen hilabete haietan eta izan baitugu hamaika urtez.

Urte gogorrak izan dira, ez dut ukatuko, horrelako zama gaine-

an izatea ez baita samurra. Baina, era berean, urte aberatsak izan dira, inguruan etengabeak izan direlako babesa eta laguntza. Ikarragarria izan da jendearen laguntza, babesa eta lana, bai *Egunkaria*-ren itxierari aurre egiteko, bai BERRIA martxan jartzeko. Sekulakoa herritarren erantzuna BERRIA eratzeko akzioak erosteko orduan. Handi goa oraindik *Egunkaria*-ren kontrako epailetaren inguruan sortu zen mobili-

zazioa. Dudarik gabe, Euskal Herriari asko zor diogu, dena esango nuke nik; herritarren ekimen hori gabe zaila izango baitzen gertatu izan den guztia. Eskerririk, beraz. Ahal dela, gaurtik aurrera, alde honekin geratu nahiko nuke. Eta egindakoak ez badira ahaztu behar ere, hobe dugu, nik uste, Euskal Herriaren erantzun eta lan gaitasun hori kontuan hartu eta eredu izatea, herri gisa egiteko dugun bidea gure esku dugula sinesteko.

11 urteko ibilbide honetan, auzipetuetako batzuk hil egin dira, eta haiek gogoratu nahiko nituzke bukatu aurretik, haiek ere merezi baitute gogoan izatea: Martin Ugalde, Luis Goia eta Inma Gomila. Eta horiek aipatuta nik ezin ahaztu egoera hartan proiektu berriaren buru jartzeko adorea izan zuen Joxan Lizarribar laguna.

Azkenik, bihoakie besarkada bana zorte bera izan ez zuten eta kartzelan diren *Egin*-eko kideei. Eta opa diezagun zorte hobea azken urteetan kriminalizatzen ahalegindu diren gainerako heldabideei.

11 urte jakinda deliturik ez zela egin, delitu bakarra herritarrentzako informazio tresnak sortu, euskara sustatu eta herri baten garapenerako oinarriak jarri joatea izan zela

'EGUNKARIA'-KO LANGILE OHIEN OHARRA

Euskaldunon Egunkaria-ko langile ginenok, 2003ko otsailaren 20an Guardia Zibilaen operazio baten ondorioz lanposturik gabe utzi gintuztenok, poz handiz hartu dugu orduan hasitako bidegabekeria behin betiko bukatu delako albisteak. *Egunkaria* ixtea adierazpen askatasunaren eta euskal prentsaren kontrako erasotzat genuen, eta, auziaren erabateko artxibatzearen aurrean, ideia horixe berresten dugu.

Ez dugu ahazteko 11 urteotan auzipetuek nozitutakoaren larritasuna: atxiloteta bortitzak, inkomunikaziopeko torturak, espetxealdiak, zigor eskaerak.

Ez dugu ahazteko, ezta ere, jasotako elkartasun olde eraldioa. Gure alde egon diren guztiekiko esker ona haien laguntzaren tamainakoa da.

Eta ez ditugu ahaztu nahi *Egunkaria auzia*-ren itxiera zuzenean ikusi gabe geratu diren Luis Goia, Inma Gomila eta Martin Ugalde.

Gaurko gure pozaren erdian, gogoran ditugu.

Era berean ditugu gogoan *Egin* egunkarian egindako lanagatik preso dauden Xabier Alegria, Jose Luis Elkoro, Pablo Gorostia, Manuel Intxauspe, Isidro Murga, Patxi Murga, Xabi Otero, Javier Salutregi, Carlos Trenor, Jexumari Zalakain eta Iñaki Zalakain. Eta adierazpen askatasunaren kontrako erasoak ez dira bukatu, zoritxarrez. Halakoei aurre egiten segitzeko prest gaude.

TWITTERREKO ELKARTASUN MEZUAK

- «#Egunkaria-ko auzi ekonomikoa, artxibatua 11 urte eta gero. Ez dadila berriro gertatu»
- Azkie Fundazioa** (@AzkieFundazioa)
- «Bukatu da amesgaiztoa, bejoneiduzela guztioi!»
- Pernando Barrena** (@permandobarrena)
- «#Egunkaria auziaren atal ekonomikoa artxibatzea berri ezin hobea. Zorionak auzipetuei!»
- Markel Olano** (@markelolano)
- «#Egunkaria-ren kontrako bidegabekeria amaitu da, bazen garaia! Besarkada bat ARGIAko lan taldearen partetik»
- ARGIA** (@argia)
- «Albiste ona euskal kazetari-tzarentzat. #Egunkaria auziaren atal ekonomikoa, artxibatuta. Zorionak!»
- Ander Arzak** (@AnderArzak)
- «Azkenean bukatu da #Egunkaria auzia. Komunikabide bat itxita, torturatuta, ez ahaztu. Zorionak auzipetuei eta besarkada bat langile ohiei»
- Gari Udabe** (@GariUdabe)
- «Avui també és un dia per recordar la solidaritat del poble català amb #Egunkaria Gràcies!»
- Gari Berasaluze** (@kalaportu)
- «Zorionak @berria eta Egunkariako langile eta arduradun guztiei! #Egunkarialibre. Azkenean!»
- EHZ festibala** (@ehzfestibala)

- «Orain #egunkarialibre gertatu dela nori aitortuko dio egindako kaltea? Nork eskatuko dio barkamena? Nork ziurtatuko du ez dela erreplikatu?»
- Eneko BAI Fernandez** (@enekogara)
- «Zorionak eta besarkada bat zortzi auzipetuei eta Euskal Herria osoari! Gertatutako guztia gogoan azkenik pozez esan dezakegu #Egunkarialibre»
- Ainhoa Arano Urriza** (@ainhoa_arano)
- «Euskarazko egunkariaren proiektua bultzatu zuten herritar eta eragileak zoriondu nahi ditugu. Eta, gogoratu nahi dugu, interes politikoa hutsen eta mendeku gosean oinarritutakoa izan zela #Egunkaria-ren aurkako prozesua»
- EH Bildu** (@ehbildu)
- «LABek pozez hartu du eman zitekeen erabaki zuzen bakarra hartu delako Egunkariarekin. Proiektuan kide izan ziren guztiei besarkada bero bat»
- LAB** (@LABsindikatu)
- «#Egunkaria-ren auzi ekonomikoa artxibatuta dute, egindako kaltea «besterik» ez da geratzen»
- Bai Euskal Herriari** (@baiEHin)



Euskaldunon Egunkaria-ko langileak, kazeta itxi zuten egunean, kanpoaldean. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

@ 'Egunkaria auziko' informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: berria.eus/egunkaria/